



3 AURREKONTUAK Udalaren kontuak egoera onean

Udal Gobernuak 2014 urteko ekitaldia superabitarekin amaitu duela jakitera eman zuen asteazkenean eskaintako prentsaurrekoan. Udalaren kontuak "saneatuak" daudela eta honekin aurreikusi gabeko inbertsioak egiteko dirua dagoela adierazi zuten. Honetaz gain, 2015 urteko aurrekontuak aurkeztu eta onartuko direla aurreratu zuten Udal Gobernuak kideek. Aurtengo inbertsioen barruan Manttangorri zerbitzua Mugi txartelean sartzea dago.



4 KULTURA Xumela koruak Galiziarra egingo du bidaia

Maiatzaren leheneko zubia baliatuz, Xumela koruko lagunak Zarauzko Montetxio eta Hondarribiako Olagarro koruko kideekin batera Galiziarra doaz. Euskal Herria eta Galziaren arteko lorturak sendotuko dituzte. Horretarako, Santiago eta Rianxora bisita egingo dute. Hauetan lagun berriak egiteaz gain, euskal doinuez beteko dituzte bi herri hauetako kale, zein aretoak.

Sasoetako etxabeak eraisteko lanak hasi dira

Apirilaren 30ean, auzotarrekin bilera egingo da azalpenak eskaintzeko

Hiru hilabete eta erdiz, Sasoeta auzoko San Marcial eta Uzturre plazetan etxabeen eraisketa lanak egingo dira. Era honetara, bi eremu ireki irabaziko dituzte herritarrek. Hauen erabilera auzotarrak erabakiko dute.

Atzo Pablo Barrio alkateak, Ibon Rosales udal arkitektoak, Nagore Mitxelena hirigintzako teknikoa eta Ainhoa Guerras Hiridunak talde teknikoko kideak Sasoeta auzoan datozen hilabeteetan egingo diren lanen berri eman zuten.

Ibon Rosales arkitektoak proiektu honen lehenengo faseko nondik norakoak azaldu zituen.

Udal arkitektoa pozik agertu zen proiektu honen azken urratsean daudelako. Rosalesek gogoratu zuenez, urte askotako lana da hau, "lokalak eskuratu, proiektua egin eta dirua lortu".

Era berean, lan hauek auzoan zegoen puntu beltzari, pasadizoari irtenbidea emango zaiola adierazi zuen.

Eraisketa lanak Murias enpresak eramango du aurrera eta 318.500 euroko gastua izango du.

Lanen egutegia

Lanak hiru hilabete eta erdi iraungo dute. "Orain obren lehen pausoak ematen ari dira. Inguruaren egokitzapena egiten ari dira," aipatu zuen udal arkitektoak.

Hurrengo astean zangak ireki eta lokalak hustuko dira eta hamabost egunera eraisketarekin hasiko da. "Honek



Udal ordezkari eta teknikariak, Muriaseko obra arduraduna eta Hiridunak talde teknikoko kidea lanen eremuan.

hilabete iraungo du. Lehenik Uzturre plazako etxabeen eremua egingo da eta gero San Marcial plazakoa. Bakoitzean bi asteko lana egongo da".

Ostean, espazioaren egokitzapen lanak eta garajeen gainean forjatu berria egingo da. "Azterketa tekniko egin eta zaharrek bakarrik etxetako pisua eusten ez dutela ikusi zen. Hauek indartzea zen lehenengo ideia, baina ez da nahikoa eta berriak egingo dira," jakitera eman zuen Rosalesek.

Lanekin amaitzeko zoruko babesak jarriko dira. Pauso hau abuztuan eginda egotea espero dute teknikariek.

Udal arkitektoak hilabete hauetan auzotarrei pazientzia izatea eskatu die. "Lanek eragozpenak sortuko dituzte, soina, hautsa eta kamioi asko izango dira bertan lanean".

Azkenik, Jaizkibel plazako lokalak eraisketa proiektua geratuko litzatekeela gogoratu zuen, baina "hori hurrengo urteetarako dago aurreikusia".

Eremuen erabilera

Bigarren fasea, espazio hauen erabilera zehaztean datza. Hau Sasoeta Sasoituz! parte-hartze prozesuaren bidez egingo da eta Hiridunak talde teknikoak egon da lanean erabilera ildo horiek zehazteko.

Ainhoa Guerras Hiridunak taldeko kideak azaldu zuenez, 2014 urteko iraila eta Abendua artean, auzotarrekin lan egin zen.

Bilera hauetan Lasarte-Oria eta Sasoeta auzoa nola sortu ziren azaldu zituzten auzotarrei.

Era berean, auzoan zeuden arazoak aztertu ziren, hala nola, zergatik erabiltzen dira plaza batzuk besteak baino gehiago.

Eta lokalak eraitsi ostean, espazio horri zein erabilpen eman ahal zaion ere landu zuten. "Horretarako herritarren proposamenak eta iradokizunak bildu genituen eta lanak amaitzean, hauek konfiantza izango dira erabilpena zehazteko".

Bilera

Hau guztiaz gain, Udal teknikari eta Hiridunak talde teknikoko kideek ostegunean, apirilaren 30ean arratsaldeko 18:30ean, lan hauen zehaztapenak emateko bilera egingo dela jakitera eman zuten.

Honetan batetik, lanen zergatia, auzoan izango duten eragina eta auzotarrei sortu ahal dizkieten eragozpenak azalduko dira. "Esate baterako, lokal azpietako garajeak hustu beharko dira," aipatu zuen udal arkitektoak.

Gainera, Sasoeta Sasoituz! proiektuak zein puntuan dagoen azalduko dute Hiridunak taldeko kideek eta herritarren proposamenak gogora ekarriko dira. Lanak egin ostean, iraila aldera, beste bilera bat egingo dela ere jakitera emango dute, "hau eremuetan bertan egingo da eta herritarrek espazioa nola antolatu erabakiko dute".

Hau guztiagatik, Udalak auzotarrei osteguneko bilera-joateko gonbita egiten die.

MAiTE

Foto depilazioa argi pultsatuekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu



Prezio berriak fotodepilazioan
ETORRI eta GALDETU

Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

Neure kabuz



Asier Odriozola

Hauteskundeak

Gutxi dira batere hauteskunderik gabeko urteak. Batzuk Europara begirakoak dira, beste batzuk Gasteiz edo Iruñako parlamentuetarakoak eta berdin udal, batzar nagusi edo Bruselarako ordezkariak hautatzekoak, Madrilerakoak ahaztu gabe.

Baina aurtengoa gutxitan gertatzen da: urte bakarrean bost bozketa dira gutxienez: Lasarte-Oriako udalbatza berria erabakitzekoak, Kongresurakoak, Iparraldeko kantonalak, espainiar estatuko hauteskunde orokorrak, Kataluniako hauteskunde ia-ia plebisitariokoak eta pasa diren Andaluziakoak.

Politikoki urte nahasia eta zaila beraz zalantzarik gabe, besteak beste, orain arte adiskide izan diren alderdiak elkarri mokoka hasten direlako eta eginkizunen lehen lerroan areioaren gaintik agertzea delako.

Partidu politikoen jarduna eten egiten da orduan? EZ! Galia osoa menderatua du Zesarrek? EZ!

Bada eginkizun bat hauteskunde bezperatan areagotu eta modu harrigarrian puztu egiten dena: herrilana! Donostia dugu lasartearrok metropoli. Ez al da harrigarria lau urte horretarako izan eta errepide lanak egunotan metatzea?

A, ez da Donostian bakarrik gertatzen. Alderdi guztien joera bitxia da hori. Estrategia horrek botorik emango balie gobernu ezberdinei, ez luke horrek gure oso alde hitz egingo.

Zorion agurrak



Ander
Zorionak tirillas!!!!!! 8 muxu potolo etxeko partetik!!

Xune
ZORIONAK politta! Hiru mila muxu etxeko neskatila haundiyai!!!

Salma
Zorionak printzesa! Marrubi eta txokolatezko 6 muxu erraldoi! Maite zaitugu!

Jon
Zorionak etxeko bihurriari!!! Dagoeneko 8!!!! maite zaitugu



Asier
Zorionak gure etxeko txapeldunari! Bederatzi muxu pottolo-pottolo familia guztiaren partez.

Aitor
Zorionak nere txiki-txo handia!! Plaza aiton-amonen partetik ondo pasa zure eguna eta muxu potoloa.

Maialen
ZORIONAK PREXIOXI...ondo pasa zure 10.urtebetetzean. Leire aiton-amona eta familien partetik.

Koan
Beste eskuarekin hasten gara!!! Zorionak maitia!! familia guztiaren partez muxuak.

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo txintxarri.eus web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia

Higiezin Eskaintza

- Gela alokatzen da Lasarte-Orian. 674 69 44 97.
- Salou. Apartamentua alokatzen da 4-6 pertsonentzako. Berritua eta aire egokituarekin. Erdialdean dago eta hondartza gertu du. Bi igerileku erabilgarri. Alokairua 350 eurotik gora astea. 661 14 81 68.

Lan-eskaintza

- Goiegi jatetxean astean ordu batzuk lan egingo lukeen, pertsona bila dabil. Zerbitzari laguntzailea: Euskalduna eta bezeroari arretaz zerbitzua emateko gogoia duena. Esperientzia ez da derrigorrezkoa. Garbiketako zenbait lan ere egin beharko ditu.

Lan-eskaria

- Etxerako langile bat eskaintzen da. Interno edo externo lan egiteko. 676 18 84 11.
- Etxeak garbitu, zaharrak edo haurrak zainduko nituzke goizetan, igande edo jai egunetan. 943 40 40 15 edo 606 66 10 48 Doris.
- Klase partikularrak ematen dira batxiller-

goko letretako irakasgai guztiak, latina barne. 600 76 60 68.

- Interna edo externa bezala lana bilatzen dut adinekoen zaintzan. Esperientzia eta paperak egunean ditut. 645 78 72 72.
- Neska eskaintzen da externa edo orduka lan egiteko pertsona helduen zein ume edo gaixoen zaintzan. Paperak, erreferentziak eta berehala hasteko prest 627 10 90 78 Maria.
- Emakumea eskaintzen da interna edo externa moduan lan egiteko. Esperientziaduna helduen eta umeen zaintzan. 637 19 07 26.
- Neska arduratsua externa edo interna moduan lan egiteko prest ume zein helduen zaintzan edota garbiketako lanetan lan bila. 627 26 97 19 Iris.

Bestelakoak

- Logela alokatu eta etxea konpartitu nahi dut Lasarte-Orian. 651 92 53 49, Karlos.

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Yara Garate Jimenez, apirilaren 17an.
- Irene Vazquez Regueira, apirilaren 17an.



Heriotzak

- Miguel Antonio Eraunzetamurgil Zinkunegi, apirilaren 21an, 86 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 24 Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Larunbata, 25 Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Igandea, 26 Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Astelehena, 27 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Astearte, 28 Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Asteazkena, 29 Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Osteguna, 30 Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
Ostirala, 01 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Larunbata, 02 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Igandea, 03 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Astelehena, 04 De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Astearte, 05 Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Asteazkena, 06 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Osteguna, 07 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero
Echeveste Elozegi, Elkano 9
Hernani, Tel.: 943 552087

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maidar Azurmendi, Nerea Eizagirre, Jon Altuna E.
txintxarri@txintxarri.info
Publizitatea eta administrazioa:
Arantza Artola

publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Maidar Seguro, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Pako Aizpitarte, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

UDALA

Udalaren kontuak osasuntsu

Hainbat inbertsio aurreikusten ditu udal gobernuak

Pablo Barrio alkateak eta Gorka Lizarragak asteazkenean egindako agerraldian 2014ko kontuen likidazioa eta 2015erako aurrekontu proiektua aurkeztu zuten. 2014a superabitarekin itxi du udalak eta 2015eko aurrekontuak onartuko direla aurreratu zuten.



Pablo Barrio eta Gorka Lizarraga 2015eko aurrekontu proiektuarekin.

TXINTXARRI

Hauk azaldu zuten, superabitarekin amaitu du Udalak 2014. urtea. Horretaz gain, 2015erako aurrekontu proiektua aurkeztu eta onartuko dela iragarri zuten, "hemendik gutxira onartuko den aurrekontua eta dagoeneko korporazioaren gehiengoaren babesa duena". "Gutxiengoan aginduta, lau urte hauetan aurrekontuak beste alderdiekin adostu eta kudeatzeko gai izan gara. Beraz, oso gustura gaude egindako lanarekin. Elkarlanean oinarrituta, herritarrentzat onuragarria dela uste dugu eta gehiengoaren nahia dela uste dugu".

2014ko likidazioari dago-kionez, udaleko ekonomia "saneatu" dela aipatu zuten, horrela, "krisi garai honetan hirigintza jardueratik ia diru sarrerarik jaso gabe", udaleko zor bizia %64 murriztu da, lurralde historikoan dauden

udalerrien artean Lasarte-Oria osasuntsuenetakoa dela ere aipatu dute. Lau urte hauetan Kutxari eta Aldundiari ordaindu beharreko 4,8 milioiko zorrari egin zaio aurre, eta egun 2,6 milioikoa da ordaintzeke geratzen dena.

Inbertsioak

2014an 2,7 milioiko superabita izan denez, honekin hainbat inbertsio egitea luzatuko du udal gobernuak, Donostia eta Lasarte-Oria lotzen dituen bidegorriaren azken zatia egiteko baliatu nahi dira 76.000 euro, Zuma-buruko eskolan hobekuntza lanak egiteko 400.000 euro, Zabaletako auzo elkarte eraikitzeke 120.000 euro, jubilatuen etxean hobekuntza lanak egin 50.000 euro erabiliz, Okendo plazan komun publiko bat jarri eta biltegi bat jarriko dira 57.000 euroko kostua izango dutenak, Kultur etxeko suteen aurkako sektorizazioa egingo da 100.000

euro baliatuz eta hauetaz gain beste inbertsio txiki batzuk ere egingo direla aipatu zuten.

2015erako guztira 21 milioi eurokoa da aurrekontua. Gastu handiena udal zerbitzuetara bideratuko da, zenbaitetan gizarte zerbitzuen kasu, partida handituz.

Inbertsioen atalean proposamena da, Kale Nagusia, Sasoeta ibilbidea eta Pintore kalearen asfaltatze lanak egitea 473.000euro bideratuz, Sasoetako bajuak eraitsi osteko urbanizatze lanak 375.000 euroko kostua izango dutenak, argiteria publikoa hobetuko da 50.000 euro baliatuz, kirol instalazioak hobetuko dira 41.000 euroko partidarekin, kultur etxeko ekipamendu teknikoaren hobekuntza ere proposatzen da 54.450 euroko gastuarekin eta azkenik, Manttangorri zerbitzua Mugi txartelean sartzeara, 35.900 euroko kostua izango lukeena.

Landaberri BHIko jolastokia herritarrei irekia

Landaberri BHIko jolastokia Ludalerrian kirola eta jardue-ra fisikoak sustatzeko espazio publiko berri bat bihurtuko da eta ikasturtean zehar, arratsaldez irekia egongo da herritarrek erabiltzeko.

Espazio hau orain artean ikastetxeak bakarrik erabili du eta bere ordutegitik kanpo itxita egon da.

Parte-hartze bileretan herritarrek ikasketa orduetatik kanpo bere erabilera baimentzeko eskaera egin zuten eta duela hilabete batzuk Udalak Eusko Jaurlaritzari Landaberri BHI (REM) ikastetxe publikoko jolastokia herritarrek erabiltzeko eskaera egin zion.

Ikastetxeko zuzendariaren iritziz erabilera honek ikastetxearen jardueira ez duela inolaz ere oztopatzen ikusirik,



Landaberri BHIko jolastokia kirola egiteko erabili ahalko dute herritarrek.

Jaurlaritzaren baimena jaso du neurriak.

Ordutegia

Udalak jolastokia erabiltzeko ordutegian honako hau izango dela jakitera eman du:

2015eko apirilaren 20tik maiatzaren 31ra bitartean, eskola-egunetan 16:30etik

21:00etara eta eskola gabeko egunetan 9:00etatik 21:00etara.

2015eko ekainaren 1etik 30era eskola-egunetan 14:30etik 22:30era eta eskola gabeko egunetan 9:00etatik 22:30era.

2015eko uztailaren 1etik abuztuaren 31ra 9:00etatik 22:30era.

HAUTESKUNDEAK

PSE-EEren batzar irekia

PSE-EEK herritar guztiei irekia dagoen batzarra egingo du gaur, arratsaldeko 19:00etatik aurrera Villa Mirentxu egoitzan.

Denis Itxaso Ahaldu Nagusi izateko hautagaia eta Jesus Zaballos alkategaia izango dira bertan eta herritarrek galderak egin ahalko dizkiete bie.

Alderdi sozialistak herritarrek gonbidatzen ditu ekintza honetan parte hartzera.

HAUTESKUNDEAK

Hauteskunde-mahaiak eratu dira

Maiatzaren 24ean izango diren Udal eta Batzar Nagusietarako hauteskunde-mahaiak osatzeko ez ohiko batzarra izan zen asteazkenean.

Batzarrean azaldu zuten, hauteskunde hauetan Lasarte-Oria 14.184 herritarrek bozkaturiko dute eta horretarako, 13 sekzio eta 24 mahai izango dira, Europar Batasunekoetan baino zazpi mahai gehiago. Gainera, hautesle kopuruagatik 9. sekzioak hiru mahai izango ditu aurten.

Era honetara, mahaietako 216 kargu aukeratu dira zozketan. Izendatutako herritarrei aste honetan bidaliko zaiei jakinarazpena eta mahaikide izatea eragozten dieten arrazoi edo aitzakien alegazioa maiatzaren 9a baino lehen egin behar dute.

Hauteskunde-mahai zerrendak www.lasarte-oria.eus web orrialdean daude ikusgai.

SOLASKIDE

Kurtso amaierako afaria solaskideentzat

Maiatzean sartzearrekin batera, ikasturteko azken txanpari ekiten zaio. Hau horrela izanda, Ttakunek kudeatzen duen Solaskide egitasmoan parte hartzen duten herritarrentzat ikasturte amaierako afaria antolatu da maiatzaren 7an Arrieskalleta elkartearen.

Honetan parte hartzeko aurrez izena eman beharko da solaskide@ttakun.com helbidean edota Ttakuneko bulegotik pasata.

IRTEERA

Biyak Bateko kideak Portugalera ibilaldia prestatu dute

Biyak Bateko kideek ibilaldia antolatu dute Portugalera ekainaren 1etik 8ra.

Bazkideentzat prezioa 478 eurokoa izango da eta bazkide ez direnek 500 euro ordainduko dituzte.

Dagoeneko honetan parte hartu nahi duten herritarrek aukera dute izena emateko asteleheneetik ostiralera 10:30etik 12:30erako ordutegian Biyak Baten. Bertan emango da bidaiaren inguruko informazioa.

IRAKURLE TXOKOA

Bizitzako gertakizunak

Hilabetero bezala, Irakurle Txokoko lagunak Manuel Lekuona kultur etxean bildu ziren asteartean.

Saio honetan Annie Ernaux-en 'Pasio hutsa', 'Lekua' eta 'Gertakizuna' nobela aztertu zituzten Uxue Alberdiren laguntzaz. Solasaldian hainbat gai jorratu zituzten, hala nola, idazlearen bizitza, duela 30 urte guraso eta seme-alaben harremanak edo heriotza. Izan ere, Ernaux-ek bere bizitzako gertakizunei buruzko 30 bat liburuxka argitaratu zituen.

Hurrengo saioa maiatzaren 19an izango da, 18:30ean kultur etxean eta urteetan Lasarte-Oria bizi izan den Jule Goikoetxearen 'Tractatus' liburua aztertuko da. Lanak Lauaxeta saria eskuratu zuen poesia sailan.



Euskal doinuak Galiziara

Xumela koruak Zarauzko eta Hondarribiko koruekin batera lau egunetako bidaiara egingo du

Xumela koruko kideak astelehenean Galiza taberna aurrean bildu ziren hurrengo astean Galiziara egingo duten bidaiari buruz berri emateko. Bidaiaren aurrekari gisa, motorrak prestatzen joateko, igandean galiziar kutsua izango duten hamaiketako, kalejira, emanaldi txikia eta plaza dantza saioa izango dira Lasarte-Orian.

TXINTXARRI

Xumela koruko lagunek Zarauzko Montetxio eta Hondarribiko Olgarro koruekin batera maiatzaren 1eko zubia baliatuz Galiziara egingo dute bidaiara.

Koruko kide eta lagunak apirilaren 30ean, ostegunean, abiatuko dira Galizia aldera eta maiatzaren 1 eta 2an Santiago eta Rianxo bisitatuko dituzte.

Santiagon bisita gidatua izango dute eta kontzertua eskainiko dute. Gainera, Semente eskolako guraso eta haurrekin ere izango dira galegoak bizi duen egoera ezagutu eta hauekin abestu eta dantzatzeko.



Xumela koruko kideak Galiza taberna aurrean egin zuten agerraldian.

Rianxon gaiteroekin kalejira bat egingo dute eta bertako jendearekin harremana egiteko aukera izango dute.

Keinuak

Txapas koruko zuzendariak agerraldian azaldu zuen modura, galegoz hiru abesti ikasi dituzte bertan kantatzeko, "morriñari buruzko bat, arrantzaleen alaitasuna gorai-patzen duena bestea. Eta azkena O Maio abestia da. Honetan nekazal munduari egiten zaio aipamena".

Joxe Mari Agirretzek jakinarazi zuenez, Galiza tabernan egin zen prentsurrekoa keinu bat egiteko. "Urteak daramatzan taberna da eta gure artean dauden galegoen adibide dira".

Galiza tabernako Angel Lopez Gomezek keinua eskertu zuen. "Nire familiako sustraiak batzen ditu ekintza honek. Familia 61. urtean etorri zen Lasartera. Ni eta nire anaiak bertan jaio ginen. Baina sustraiak Galizian ditugu".

Igandean saio berezia

Bidaiarako ahotsak prest izateko, Xumelako lagunak, Zarauzko Montetxio zein Hondarribiko Olgarroko kideak Lasarte-Orian batuko dira igandean entsegu orokorra egiteko.

Baina ez da hori igande goizean egingo duten ekintza bakarra izango. Entsegua amaituta, Galiza tabernan bilduko dira hamaiketako egiteko.

Indarrak berreskuratuta, kalejira alaian Okendo plaza-

ra hurbildu eta bertan eguerdian emanaldi txiki bat eskainiko dute.

Jarraian, hilabeteko azken igandean egin ohi den plaza dantza saioan parte hartuko dute. Dabid Egizabal plaza dantzako kideak aipatu zuenez, Xumelak gonbita egin eta kantua eta dantza ongi uztartzen direnez, onartu egin zuten.

Honela hamaiketakoan parte hartu eta ohiko muxiko saioa egingo dute. "Muñeira eta sardanaren bat ere dantzatu beharko dugu," aipatu zuen Egizabalek.

Kataluniatik Lasarte-Oriara

Izan ere, Xumelako lagunak azaldu zutenenez, uztailean Lladó herriko lagunak bisita izango da.

Xumela abesbatza iazko maiatzaren izan zen Katalunian eta Lladó herrixkako korua eta herritarrek uztailearen 4an herria eta Zarautz ezagutzera etorriko dira.

Lasarte-Orian goizean izango dira eta kantujira bat egingo da bi herrialdeetako doinuak nahasiz. "Bi herrien elkartasunaren ikur den oli-bondoari bisita egingo diogu, Askatasun parkean dagoena eta bazkaria izango da. Arratsaldean Zarautz aldera egingo dute".

Gaixo dauden presoan egoeraz solasaldia Manuel Lekuonan

Iñaki Errok bihotzeko gaitz larria izan zuen eta espetxeko sendagile eta funtzionarioekin orduan egon zen harreman eta tratua mintzatu zen astelehenean kultur etxean Ibonen Lagunak taldeak antolatutako solasaldian. Honen esanetan, "mediku eta gaixoaren artean ez da konfiantzarik egoten eta horrek ez du bermatzen zaintza eta zerbitzu ona". Esaterako, urgentziatzeko eta gaueko mediku zerbitzua orokorrean, txarra dela esan zuten eta botikina espetxe askotan "zaharra eta eskasa".

Ospital penitentiarioak eta atentzio espezializatua ordea, ez dela txarra aipatu zuten bi hizlariek. "Txarrena" dira frogak medikuak egiteko baldintzak, trasladioa, nola sartzen den kontsultara, esplorazioan poliziak egotea, medikuarekin intimitate eza. "Mingarria da".

Hernandok esan zuen "kalean gaixo egotea astuna

bada... Espetxean dena astunagoa da, beste gaixotasun baten iturburua ere izan daiteke". Izan ere, "gaixotasunen aurrean, izugarriko bakardadea sentitzen du presoak, ez balitz beste preso batzuen babesagatik, psikologikoki oso zaila da eramatea".

Errok azpimarratu nahi izan zuen, "espetxean ondoezik bazaude funtzionarioari esan behar diozu, berak baloratzen badu ez diola sendagileari ezer esango, ez daukazu zereginik. Bere eskuetan zaude".

Bestalde, garrantzitsutzat jo zuten kanpotik zenbait medikuk eskaintzen duten laguntza. Hauek askotan Hernandok esan bezala, tresna gutxi dituzte preso dagoen gaixoari laguntzeko, "senideek transmititzen dizkigute sintomak eta saiatzeko gara espetxeetako medikuekin hitz egiten baina batzuetan denbora asko behar izaten da. Frogak eskuratzea ere proze-



Astelehenean egin zuten Manuel Lekuonan solasaldi irekia.

su luzea izaten da. Hala ere, Errok esan bezala, euren arreta jartzea dakar kanpoko jarraipen horrek "kartzelako medikuak konturatzen direnean kanpoko sendagilearen jarraipena daukazula, presioa sentitzen dute".

Sendaezina

Ibon Fernandez Iradiren egoeraren kasuan, "gaixota-

suna larria da eta ez du sendabiderik".

Hernandok esan zuen botika fuertea hartu behar duela. "Horrelako kasuek ez dute espetxean egon behar, halakoetan espetxetik ateratzen dira. Presoak baldintza egokietan egon behar du, familia inguruan, tratamendua hartu eta gaitzari aurre egiteko".

Solasaldian Ibonena ez dela kasu bakarra adierazi eta beste hamar preso bere egoeran daudela esan zuten.

Maiatzaren 7an egingo du jakitera epaileak Ibon Fernandez Iradiren inguruko erabakia eta bere lagunak ekintza ezberdinak antolatu dituzte honen eta larri gaixo dauden presoan egoera salatzeko.

Gure Esku Dagok jaialdia egingo du bihar

Okendo plazan tutore bakoitzaren oihal zatiak josten hasiko dira

Argazki anitza atera zuten aurreko asteburuan herriko hainbat eragilek egitasmoa babesteko. Horretaz gain, "ehuntzen ari den sarearen aniztasuna" erakutsi nahi izan zuten antolatzaileek. Horretaz gain, bihar egingo den jaiaren aurrekaria izan zen. Ekimenak 75 tutore eta 1500 saretu lortzea du helburu. Horretarako, "erabakitzaren alde ehuntzen ari den sarearen parte izatera animatu nahi ditugu herritar guztiak".

TXINTXARRI

Jai eguna antolatu du herriko Gure Esku Dago ekimenak biharko. Goizeko 11:00etan TSST eta Atso-bakarreko errotondetatik musika eta jai giroan abiatuko da kalejira Okendo plazarantz. Honetan besteak beste batukada, dultzaineroak, txistulariak, hanka-paloak eta joaldunak izango dira.

Jai honetan tutore bakoitzak bere saretuekin parte hartuko du eta antolatzaileek adierazi moduan, hauei esango zaie non kokatu beharko duten kalejira berezi honetan.

Behin Okendora iritsita, 11:45ean, oihal apainketa egingo da, talde bakoitzari plazan toki bat egokituko zaio eta bertan denbora bat izango dute bere oihala apaintzen bukatzeko, tarte horretan "erronka martxan

jarriko da", saretu taldeei beraien oihalekin argazkia atera eta markadorean kontabilizatuko dute euren partaidetza, zehazki saretu kopurua zein den finkatzeko guztien artean.

Halaber, oihal bakoitzari plazan toki bat egokituko zaio eta guztien artean kutxa erraldoi bat marraztuko dute, hautetsontzi bat hain zuzen. Irudi erraldoi honi argazkia aterako zaio eta "lehenengo oihalak elkarren artean josten hasiko dira jostunak, herria ehuntzen hasiko da".

12:30ean Lasarte-Oriako abestiaren aurkezpena egingo da. "Hamaika itxaropen" da kantaren izena eta dantza bat ere prestatu dute honen zati baterako. "Denok elkarrekin egin beharreko "keinu-dantza" errepikatuko dugu bertaratutako guztiok" izan ere, abesti honen bideoklipa egite-



Larunbatean egin zuten argazkia herritarrek ekimenean parte hartzerantz animatzeko.

ko baliatuko dute biharko hitzordua.

Festa giroa

Azkenik jai giroak hartuko du plaza. 13:15ean musika eta dantza egiteko aukera izango da.

Goiz osoan zehar ere txosna egongo da jarrita Okendon eta barrikotea eta pintxoak izango dira bertan salgai antolatzaileek jakitera eman dutenez.

Aniztasuna erakutsi

Aurreko asteburuan, argazki erraldoia egin zuten Okendon herriko eragileen parte hartzearekin. Horretaz gain, photocall-a ere egin zuten antolatzaileek esan bezala, egitasmoaren aniztasuna erakutsi eta herritarrek honetan parte hartzerantz animatzeko asmoz.

Argazkian izan ziren besteak beste, Telleria harri jaso-tzaileak, Gorka Brit futbolaria,

Makuluken taldeko kideak, Javier De Miguel botikaria, Joseba Tapia musikaria, Goizon Huegun eta Miguel Angel Oribe artistak, Jexux Izeta eta Juan Mari Iradi zinegotzi ohiak, Maider Segurola eta Aitor Azkonobieta kazetariak, Pablo Barrio alkatea, Bea Egizabal ipuin kontalaria eta Cesar Marcos marrazkilaria, Joseba Zuaznabar edota Tomas Arrizabalaga Ttakuneko lehendakaria.

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketarako beroketa saioa gaur Jalgin

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa maiatzaren 9an hasiko da. Aurten Lasarte-Oriako Earra! Bertso eskolako lau kide izango dira Gipuzkoako bertso txapelketan, Beñat Iguaran, Asier Azpiroz, Ane Labaka eta Unai Muñoa.

Motorrak berotu eta buruek martxa hartzeko bertsolari gazteenek bi bertso

saio antolatu dituzte. "Txapelketan parte hartu behar dugun gazteentzat probaleku edo jendaurreko entrenamendu gisa izango dira".

Saioak

Lehenengoa, Lasarte-Oriako izango da gaur arratsaldean 19:30etik aurrera, Jalgi Kafentzokian.

Honetan Eñaut Martikorenak, Izarne Zelaiak, Eli Pagolak, Unai Gaztelumendik, Mikel Artolak eta Ane Labaka herritarrek kantatuko dute. Gai-jartzaile lanetan Uxue Loinaz izango da.

Bigarren saioa, berriz, Hernanin izango da. Apirilaren 30ean, osteguna, Oier Iurramendik, Amaia Iturri-



tzek, Maider Arregik, Iker Osak eta Earra! Bertso eskolako Beñat Iguaranek eta Asier Azpirozek hartuko dute parte.

Saioetan bertso txapelketako ariketa berdina egingo dituzte. Binaka zortziko txiki

eta handian, hamarreko txikian, lau handiko lau koplak eta Iparragirrenen doinuaren molde berria (AABBAA) ariketako dira. Kartzelako lanetan berriz, zortziko txikian erantzungo diete bi punturi, azken aurreko puntua emanda, gehienez 5 puntuko neurri handiko bertsoa osatu beharko dute eta gaia emanda, nahi den neurria bina bertso bota beharko dituzte.

Earra! Bertso eskolako kideek bertso zaleak eta herritarrek gonbidatzen dituzte saio hauetara hurbiltzera.



Sebastián Redondo

**ITURGINTZA
GASA
KALEFAZIOA
GREMIOEN KOORDINAZIOA
ERABERRITZEAK**

DUCHALASARTE

24 ordutan, bainuontzia dutxagatik aldatzen dugu



JAIZKIBEL ENPARANTZA 8 BEHEA, SASOETA AUZOA • TEL.: 943 371845 // 652 775373

LABURRAK.-

Raul Gomez Margallo lehenengo Peñaflozian eta bigarren Egiako Sudur Krosean

Raul Gomez Margallo herritarra ez zen podiumetik jaitsi asteburuan. Donostian egin ziren bi krosetan garaipena eta bigarren postua erdietsi zituen. Peñaflozian, 7 kilometroko ibilbidean, Guillermo Vahl zarauzitarra eta Josu Erkizia donostiarraren aurretik. Raul Tejado herritarra bosgarren izan zen. Emakumezkoen artetik lasarteoriatar onena Cecilia Juarez izan zen 112. postuan.

Egiako Sudur Krosean aldiz, bigarren sailkatu zen Gomez Margallo. Sei kilometroko ibilbide gorabeheratsuan bigarren izan zen Imanol Gonzalezen atzetik. Lasarte-Oriako lehenengo emakumea Nieves Civicos izan zen.

Bestalde, larunbatean, goiz eta arratsalde, Anoetako Miniestadioan Kluben arteko Euskadiko Atletismo Kopa jokatu da. Realeko Itoitz Rodriguezek (800m) eta Bidasoa Atletiko Taldeko Gaizka Ormazabalak (200m) eta Jon Altunak (4x400) lehiatu dute Euskadiko atletismo klub onena izateko esperantzaz.



GOMEZ MARGALLO

Zarautz Beltzak errugbi taldeak kolpe gogorra hartu du Ohorezko mailara igotzeko borrokan

Hilabete luze egindako lana goitik behera erori zen ia-ia igande eguerdian Zarautzko Astin. Fran Puertasek zuzendutako mutilek 0-31 galdu zuten Alcobendas igotzeko faborito handiaren aurka.

Babyauto Zarautz taldeak aukera bat edo beste izan zuen arren, Alcobendasen defentsa sendoak ezerezean utzi zituen aukera guztiak eta Beltzek nahikoa lan izan zuten madrildarren eraso gelditzen.

Herritarren artetik, Xabier eta Ander Rekondo anaiak eta David Vega sartu ziren iguera faseko lehen neurketaren deialdian. Xabier Rekondok soilik jokatu zuen titular.



A. VEGA

Etxean jasandako porrot honekin, oso zail dute ligaxkako lehen postua lortzea. Alcobendasek Valentziako CAUren aurka galtzen ez badu, lasarteoriatarrek eta zarauztarrek geratzen diren partidu guztiak irabazi beharko litzuzke, eta gainera Alcobendasen

baino erasoko bonus gehiago pilatu edota averagea hobetu.

Igandean Valentziara bidaiatuko dute CAUren aurka jokatzeko. Garrantzitsua izango da lesionatuak erreuperatzea, bereziki Xanti Irazusta eta Lucas Panichelli taldeko motorrak.

Bestalde, Beltzaken sub 14 taldeak lider jarraitzen du Hernaniri irabazita. Ordiziaren aurkakoan erabakiko da Gipuzkoako txapelduna, ordiziarrak edo herritarrek, zein izango diren.

ZALDIAK.-

Xanti Telleria eta 'Estai' garaile Itzurungo zaldi lasterketan

Herritarra hemezortzi zaldunen artetik onena izan zen Zumaiako hondartzan, San Telmo festetako proban

1.500 metroko lasterketa nagusia irabazi zuten Xanti Telleriak eta 'Estai' behorrak joan den asteburuan. Honekin, laugarren garaipena lortu dute erreskadan Itzurunen. Bigarren postuan beste herritar bat sailkatu zen, Guillermo Sanchez, 'Messi' zaldiarekin.



Xanti Telleria eta Estai behorra Itzurungo hondartzan, ahalegin betean.

BALEIKE

JON ALTUNA EGITEGI

Xanti Telleria eta 'Estai' haren zaldiak irabazi zuten Zumaiako lasterketa nagusia joan den asteburuan. Guztira hemezortzi zaldunek hartu zuten parte eta jendetza bildu zen Itzurungo hondartzan San Telmo jailetako zaldi lasterketa ikusteko.

Telleria eta Sánchez herritarren artetik Gaizka Villanueva bizkaitarra eta 'Pitxumina' zaldia sailkatu ziren hirugarren postuan.

Gustura zen Xanti Telleria Pepene baserriko semea zaldien lanarekin: "Primeran moldatu gara, lan ederra egin du Estai", adierazi du.

Aurtengoa kontutan hartuta, Zumaiako probako azken lau edizioak erreskadan irabazi dituzte lasarteoriatarrek eta haren behorrak, ikusle oldearen aurrean.

Itzurunen bertan amaitu dute hondartzetako denboraldia eta orain landa eta errepedeetan arituko direla azaldu du Telleriak. Izan ere, Euskal Herriko herri gehienek udara aldean ospatzen dituzte herriko festak eta ohikoa izaten da zaldi lasterketa ikuskizunak egitarauetan topatzea.

Esaterako, maiatzaren 17an Bizkaia aldean 2.400 metroko errepedeko lasterketa izango dute. Hilaren 23an Izaskunen, Tolosan izango dira eta 31n berriz Anoetan.

Lasarteoriatarren asmoa, ahal dela, proba guztiak irabaztea da: "Garaipenagatik borrokatzeko moduan gaude la uste dut, iaz parte-hartu genuen proba guztiak irabazi genituen. Aurten ezingo dugu marka berdindu, Donostian, Ondarretan, bigarren izan gara eta", esan du Telleriak.

'Estai' behorra

Oso pozik dago jabea 'Estai' bederatzitako behorrarekin: "Belar, bide, hondar... Berdin dio, Estai beti aritzen da ondo. Denera 33 lasterketa ditu irabaziak bere ibilbidean. Beterano samarra da, eta ongi ikasia dago. Aurreneko postuan jartzen bada, ez dio inork aurrea hartzen. Beste zaldien bat edozein lekutatik gerturatzen zaiola somatzen badu, erritmoa gogortu eta aurrera jotzen du. Abiadura eta erresistentzia handiko behorra da oraindik".

Aurrez Hipodromotik ateratako 'Indar', 'Lur' eta 'Kalimotxo' zaldiak ere bazituen Telleriak, baina dagoeneko lasterketetatik erretiratuta ditu. Orain 'Estur' ilobaren zaldiarekin ere ibiltzen omen da pixka bat. "Zaletasun handia dut, ez dut diruagatik egiten, zaldiak prestatu eta ondo pasatzea da asmoa".

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 25

Michelin, 12:15ean

Ostadar SKT - Olarizu
Kadeteen Euskal Liga
30. jardunaldia.

Fadura, Errenteria, 12:30ean

Touring - Ostadar SKT
Infantilen Ohorezko Kopa
11. jardunaldia.

Michelin, 14:00etan

Ostadar SKT - Santo Tomas B
Kadeteen I. maila
13. jardunaldia.

Michelin, 17:15ean

Texas Lasartearra - Amara Berri
Jubenilen I. maila, Kopa
14. jardunaldia.

Harane, Usurbil, 18:30ean

Hernani - Ostadar SKT
Jubenilen Ohorezko maila,
27. jardunaldia.

Igandea 26

Michelin, 10:45ean

Ostadar SKT - Touring
Emakumeen Lurralde maila, Kopa
13. jardunaldia.

Berazubi, Tolosa, 16:30ean

Tolosa CF - Ostadar SKT
Ohorezko Erregionalak
13. jardunaldia.



ARETO-FUTBOLA

Ostirala 24

Herriko areto-futbol txapelketa,
24. jardunaldia

Michelingo kirol-gunea, 19:45ean

Reformas Lagunak - Urdaneta HK

Michelingo kirol-gunea, 20:45ean

Ilargi - Insausti

Larunbata 25

Michelingo kirol-gunea, 09:15ean

Bar Buenexea - Txoko Taberna

Michelingo kirol-gunea, 10:15ean

Viña del Mar - Txindoki

Michelingo kirol-gunea, 11:15ean

Bar El Punto - Bar Also

Michelingo kirol-gunea, 12:15ean

Trumoi - Izkiña Taberna

Udal kiroldegia, 19:00etan

Ostadar Antonio Ar. - Meatzari
III. Maila, Nazionala

IGERIKETA

Larunbata 25 - Igandea 26

El Perú Cáceres Wellness, Cáceres

Ainhua Martin eta Leire Martin
Burutzaldea IKTKo alebinak Erkidego
arteko Espainiako Txapelketan arituko
dira Euskadiko Selekzioarekin.

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 25

Bergara, 16:00etan

Bazpiko jubenilek Bergarako LII.
Labegarietako Sarian parte-
hartuko dute, 77 kilometroko
ibilbidearekin.

Igandea 26

Beasain, 16:00etan

Bazpiko kadeteek Loinaz Usurbe
Sarian parte-hartuko dute, 50 km.

SASKIBALOIA

Larunbata 25

Udal Kiroldegia

Ostadar SKT - Easo Balerdi (16:00)
Ordizia KE - Bera Bera (18:00)
Kadete errendimenduko nesken Final
Four-a, final handia igandean (10:00)



Agenda

Larunbata, 11:00etan, Okendo plaza



Jaia Gure Esku dago

Gure Esku Dago ekimenak jaia antolatu du biharko. Kalejira batekin hasiera emango zaio egitarauari Okendon. Bertan oihalak apaintzen bukatzeko aukera izango dute herritarrek eta ostean josten hasiko dira zatiak. Horretaz gain, herriko kanta aurkeztu eta honentzat dantza egingo da denen artean. Hau kantaren bideoklipa osatzeko baliatuko da. Musikak girotuko du jaialdia eta dantzarako tartea ere izango da. Antolatzaileek taberna jarriko dute plazan.

Lasarte-Oria

Zinema

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Ostirala, 22:00etan

"Boyhood" filma Okendo zinema taldearen zine forum saioan. Sarrera 5,50 euro.

Igandea, 17:00etan

"Home. Hogar, dulce hogar" filma haurren zinema atalean. Sarrera 3,70 euro.

Igandea, 19:30etan

"Samba" filma helduentzako zinea atalean. Donostiako Zinemaldian aurkeztu zen. Sarrera 5,50 euro.

Proiektzioa

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Larunbata, 17:00etan

Eduki digital berrien artean, Carlos Sauraren "Flamenco hoy" ikuskizune-

ko grabaketa 3D formatuan ikusi ahal izango da. Sarrera 9 euro.

Bertsolaritza

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Ostirala, 19:30ean

Eñaut Martikorenak, Izarne Zelaiak, Eli Pagolak, Unai Gaztelumendik, Mikel Artolak eta Ane Labakak kantatuko dute. Gipuzkoako Txapelketa maiatzaren 9an hasiko da eta saio hau "Beroketa saio" gisa antolatu dute. Sarrera doan.

Antzerkia

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Larunbata, 17:00etan

Cervantesen Kixoten oinarritutako lana eskaintzen du Markeliñe taldeak.

Nobelaren pertsonaien izakera oinarritzat hartuz, adiskidetasun istorio bat proposatzen da. Bizitza ikusteko bi aldeak, Sancho, oinak lurrean dituen eta Quijote, egunerokotasunari, ohizkoari, benetakoari beste zentzu bat bilatu nahian. Sarrera 3,80 euro.

Kulturartekotasun Astea

SASOETA IKASTETXEA

Larunbata,

10:00etatik 19:00tara, Olinpiadak, Umeentzat tailerrak, Kukuka Haur dantza, Kukuka Sormen Taldearen emanaldia, "Nigeria Canta" emanaldia, Munduko abestiak, Herri bazkaria, Te aretoa (TEBAL elkartearen haima erraldoia), "Bolivia Baila" emanaldia, Sevillana tailerra, Zambra-ren emanal-

dia, Semblante Andaluz-en emanaldia, Bollywood tailerra, Bollywood emanaldia, Literatura eta Argazki Lehiaketako sari banaketa, Bingoa eta zozketa, Salsa kubatarraren tailerra, Amaia González-en dantza emanaldia eta eguna amaitzeko, salsa kubatarra taldearen emanaldia.

Jaialdia

USOAK, GAROA ETA ABEND KAFE-ANTZOKIA

Larunbata, 19:30etik aurrera

Apirileko Feria dela eta, Zambra taldeak lehenik flamenko tailerra eta 23:30etik aurrera, emanaldia eskainiko du hiru tabernetan.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Apirilean zehar

Haur eta gaztetxoek 2014 urteko Udako Txoko eta Kanpaldiak gogora ekartzeko argazki erakusketa.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Ostirala, 18:00etatik 21:00era

XV. eta XVI. mendeetako Moldaviako artearen hainbat adibide ikusgai izango dira. Decebal, Errumania-Euskadi elkar-teak antolatua Kultura sailaren laguntzaz. Doan. Gaur da azken eguna.

Usurbil

Jaialdia

FRONTOIA

Larunbata, 17:30ean

III. Dantza eguna ospatuko da. Usurbilgo talde desberdinen dantza erakustaldia izango da, honetan Kukuka taldeak dantza garaikidea eta euskal dantza-garaikide fusioa emanaldia eskainiko du.

Herritarren txokoa

Eskutitza

Maria Auxiliadoraren ohorezko meza

Maria Auxiliadoraren ohorezko meza izango da Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizan hilabetero bezala. Apirilaren 24an, ostirala, arratsaldeko 17:00etan.

Odol-ateratzea

Hilabeteko azken astelehenean apirilaren 27an, eman ahal izango da odola Osasun Zentroan, arratsaldeko 17:30etik 20:30era. Jende gehiago eta gaztea behar da odola emateko, hain zuzen, A- eta O- taldekoak dira beharrezkoenak. Anima zaitetzte, odol falta dago eta!

Norberak bere ardura

Eguzki eta Zero Zaborrek otsailean ohar bat plazaratu genuen. Horren bidez, Lasarte-Oriak legegintzaldia birziklatze bidean pauso sendorik egin gabe alferrik pasatzen utzi duela deitoratu genuen. Halaber, salatu genuen PSOEk eta EAJ-k 5. edukiontzia etengabe barrikada gisa erabili dutela, Udalak zabor kontutan neurri eragingarri-gorik ez hartzeko, baina, azkenean, 5. edukiontzia ere ez dela ezarri.

PSOEk bozeramaile eta 5. Edukiontzia Ezartzeko Udal Batzorde Bereziko presidente ere baden Jesus Zaballosi ez zitzaion gure kritika gustatu eta orain dela gutxi idatzi publiko baten bidez erantzun digu. Paradoxa badirudi ere, erantzun hori guk salatutakoa berrestera dator, hau da, legegintzaldia, birziklatzeari dagokionez, alferrik galduta dago. Are gehiago, otsailean oraindik bage-nuen duda bat, hain justu, hauteskundeak izan baino lehen zenbait edukiontzi marroi auzoren batean jarriko ote zuten duda, besterik ez bada ere, egingo balute bezalako itxurak egiteko baina benetan egin gabe. Baina Zaballosen erantzunak duda hori ere argitu du. Beraz, ofiziala da: Lasarte-Oriak legegint-

zaldia galdu du. Hori bai, bere erantzunean, Zaballosi saiatzen da iskin egiten auzi honetan duen erantzukizunari, eta 5. edukiontzia ezarri ez izanaren arrazoiak Bilduri galdetzeko aholkatzen digu. Izan ere, Zaballosen arabera, Bildu da erantzulea, besteak beste, koalizioak 2015eko aurrekontua oraindik aurrera atera ez duelako. Guk ez dugu alderdien arteko ika-miketari sartzeko batera asmorik, baina ardura kontutan ere gauza bat oso argi dugu: bakoitzari berea...

Zaballos 5. Edukiontzia Ezartzeko Udal Batzorde Bereziko presidentea da, eta, horren ondorioz, gai honi dagokionez, erantzule politiko nagusia. Izan ere, erantzule politiko nagusi gisa agertu zen iazko apirilean, 5. edukiontzia 2014an zehar ezarriko zela iragarri zuenean, harro-harro iragarri ere. Horren lekuko da hemerotea, eta hemerotekari, behintzat, ezin dio iskin egin. Baldin eta 5. edukiontzia ezartzea 2015eko aurrekontuaren arabera badago, orain esaten duen bezala, zergatik egin zuen 2014rako iragarpena? Zer pentsatu behar dugu?, gehiegizko protagonismo nahiak itsututa edo, kea saltzen aritu zela? Bes-

talde, 2014ko aurrekontuan bazen 5. edukiontzia ezartzen hasteko 20.000 euroko diru kopuru bat. Diru hori ez da gastatu, eta, hala ere, 5. edukiontzia ez ezartzeko arrazoia izan daiteke 2015eko aurrekontua oraindik onartuta ez egotea? PSOEko bozeramaileak aitortu beharko du ez dela erraza ulertzen.

Bilduri galdetu behar diogula? Ez jauna, Zaballosi dagokio azalpenak ematea, bera baita erantzule politiko nagusia. Haren erantzuna lerro artean irakurrita ondorioztatu daiteke 2014an 5. edukiontzia ezartzeko arazo teknikoak izan zituztela (baina ez ote zen Bildu kulpan-tea?). Horrela izan bazen, esan dezala zein izan ziren arazo tekniko horiek. Baina ez da zuzena oilar baten gisa jokatzeko, eta, gero, gauzak espero bezala ateratzen ez direnean, norberaren ardurari iskin egitea eta, bide batez, besteren bati egozten saiatzea.

Hasi bezalaxe bukatuko dugu: Lasarte-Oriak legegintzaldia (beste bat) alferrik pasatzen utzi du birziklatze bidean pausorik egin gabe. 5. edukiontzia ere ez da ezarri eta ez da ezarriko, ezta era sinbolikoan ere. Dagoeneko ofiziala da.

Eguzki eta Lasarte-Oriako Zero Zabor

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi

edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 366858
txintzarri@txintzarri.info



Brahim Ahmed Frente Polisarioko ordezkariak saharar herriaren gatazka azaldu zuen.



Ikasleek herri ijitoak azken urteetan eman dituen aurrerapausoak ezagutu zituzten.



Hajar Samadi eta Tarana Karimekin batera, Julia Hernandez jarduneko Arartekoa izan zen.



Porrotxek kolore biziz jantzi zuen Kulturartekotasun Astea, umez inguratutik.



Burunzpe guraso elkarteko, Udaleko, zein Eusko Jaurlaritzako ordezkariak Kulturartekotasun astearen hasiera ekitaldian.

Elkarbizitza eredu

Guraso eta haurrei zuzendutako hainbat ekintza burutuko dira asteburuan Sasoeta ikastetxean

Kulturartekotasun astea burutzen ari dira Sasoeta-Zumaburu ikastetxean. Astelehenean lehen ekitaldiak eta Errumaniari buruzko hitzaldiak eman zion hasiera asteari. Bihar, ekintzaz betetako jaialdi handi batek emango dio amaiera. Baina bitartean kultura ezberdinek ezagutzeko aukera izan da ikastetxean.

Astelehenean, Mirena Gonzalez, Dyan Montero, Koro Dominguez eta Peio Sanchez Burunzpe guraso elkarteko Kulturartekotasun batzordeko lagunekin batera, Pablo Barrio alkatea, Jose Manuel Bujanda Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailburuaren Kabineteko zuzendaria eta Bikendi Lazkano Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko zuzendaria izan ziren aurtengo Kulturartekotasun asteari hasiera ematen.

Ostean, Mioara Denisov Decebal Errumania-Euskadi elkarteko kideak bere herriaren berri eman zuen.

Asteartean, Saharar herria izan zen protagonista. Tebal elkarteko Ibon Iburguren eta Brahim Ahmed Euskadiko Fren-

te Polisarioko ordezkariak eman zuten honen berri.

Asteazkenean, gazteek herri ijitoaren aurrera-pausoen berri izan zuten eta arratsaldean, gurasoek Islamari buruzko xehetasunak eta kanpoko emakumeen ikuspuntua ezagutu zituzten. Atzo berriz, Porrotx pailazoaren bisitak hankaz gora jarri zuen ikastetxea eta perkusio tailerra ere izan zen.

Era berean, Saharar herriari buruzko erakusketa eta batzordeak antolatutako argazki lehiaketako erakusketa ere ikusgai izan dira astean zehar.

Tailerrak eta jaialdia

Gaur, tailerrak izango dira nagusi. Graffiti, txalo jotze edo dantza orientaletan lehen pausoak emateko aukera izango da. Hip-hop eta Jalgune elkarteko

lagunen emanaldia eta Dinbi Banda batukada ere bertan izango da.

Bihar larunbata berriz, egun osoko jaialdia izango da. Olinpiadak eta ume eta gurasoentzat tailerrak egingo dira. Sevillanak, Bollywood dantzak eta salsa kubatarra ikasi ahalko dituzte hurbiltzen diren herritarrek.

Hainbat emanaldiz gozatze-ko aukera ere izango da: Kukuka haur dantza eta sormen taldea, "Nigeria Canta", "Bolivia Baila", "Zambra taldea, Semblante Rociero, Bollywood ikuskizuna, Amaia Gonzalez dantzariaren erakustaldia eta salsa kubatar taldearen emanaldia.

Munduko abestiak ikasteko saioa bat ere izango da eta arratsaldean, te aretoa osatuko da Tebal elkartearen haima erraldoian.

Literatura eta argazki lehiaketako sari banaketak egingo dira, baita bingoa eta zozketa ere.

Burunzpek herritarrak gonbidatzen ditu Sasoeta ikastetxean gaur eta bihar egingo diren ekintzetan parte hartzera.



ERRENTA AUTOLIKIDAZIOA EUSKARAZ

BATU ETA GEHITU ETEKINA

%20 BAIETZ BURUNTZALDEAN!

Informazio gehiago: <http://euskara.buruntzaldea.org>
Sartu Buruntzaldeko Facebook-en eta parte hartu gure lehiaketan!

Andoain / Astigarraga / Hernani / Lasarte-Oria / Urnieta / Usurbil
Udal Euskara Batzordeak



Buruntzaldea



LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO